

## UNIBERTSITATE-İKASKETAK ETA BESTE GOI-MAILAKO IKASKETA BATZUK EGITEKO BEKAK

EAEn administrazio-egoitza duten ikasleentzako beka dira, autonomia erkidego honetan edo estatuko edozein ikastetxetan unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako beste ikasketak batzuk egiten badituzte, **master ofizialak** barne eta gainerako gradu-ondoko ikasketak izan ezik.

- **2011-2012 Deialdia:** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu-aren 2011ko ekainaren 28ko Agindua (EHAA 2011ko uztailearen 14).
- **Eskatzeko epea:** Irailak 30era arte.
- **Eskabidea jasotzeko eta aurkezteko tokia:** Eskaera orria bete eta jaso daiteke [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) -Unibertsitate eta Ikerketa-Bekak, laguntzak eta diru-laguntzak - Web gunean. Ikasketak egingo diren ikastetxean bertan aurkeztu behar da eskaera orria.

## BEKAREN OSAGAIK ETA ZENBATEKOAK (2. artikulutik -10.era)

- **Prezio publikoen zenbatekoa** (3 errenta muga): Irakaskuntza zerbitzuengatikozko prezio publikoei dagokien zenbatekoa da. Bekaren osagaien bat jasotzen duten ikasle guztiei emango zaie, EAE barruko eguneroko garraioa jasotzen dutenei izan ezik. Lehenengo eta bigarren matrikularen kredituak hartuko ditu barne.
- **Soldata** (1 errenta muga): **3.500 €**, Gradu ikasketak badira.
- **Osabidezko laguntza** (1 errenta muga): **2.800 €**, Gradu ikasketak izan ezik, beste gainontzeko ikasketak guztiak badira.
- **Hiriarteko garraioa** (2 errenta muga):
  - 5 km.- 10 km.: **192 €**
  - 11 km. - 30 km.: **386 €**
  - 31 km. - 50 km.: **763 €**
  - 51 km.- 200 km.: **993 €**
  - 200 km.tik gora: **1.592 €**
- **EAE barruko eguneroko garraioa:**
  - Gutxienez **308 €** (2 errenta muga).
  - Gutxienez **196 €** (3 errenta muga).
- **Egoitza:**
  - 3.772 €** (1 errenta muga).
  - 3.336 €** (2 errenta muga).
  - 2.903 €** (3 errenta muga).
- **Material didaktikoa :**
  - 307 €** (2 errenta muga).
  - 239 €** (3 errenta muga).

## İKASKETA ETA EKONOMIA BALDINTZAK

### • EKONOMIA BALDINTZAK (14. artikulutik 19.era)

#### FAMILIAREN ERRENTA MUGAK (€)

KIDE KONPUTAGARRIEN ZENBAKIA	1 ERRENTA MUGA	2 ERRENTA MUGA	3 ERRENTA MUGA
1	3.962	11.937	14.826
2	7.646	19.444	25.308
3	11.143	25.534	34.352
4	14.613	30.287	40.796
5	18.076	34.370	45.598
6	21.463	38.313	49.224
7	24.773	42.041	52.810
8	28.009	45.744	56.380
+ 1	3.235	3.672	3.562

#### FAMILIA ERRENTAREN KALKULUA:

**ZERGA OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA OINARRIA - KUOTA LIKIDOA**  
\*PFEZen menpean ez dauden diru-sarrerak edo salbuetsiak direnak ere kontuan hartzen dira.

#### Aplika daitezkeen kenkariak:

- Familiaren errenta garbiaren ehuneko hamar, honako kasu hauetan:
  - Eskatzailea guraso bakarreko familia batean seme edo alaba denean, diru iturri bakarra besteren konturako lana edo bere kasuan jasotako pentsioak izatekotan.
  - Eskatzailea guraso bakarreko familia batean ama edo aita denean, diru iturri bakarra besteren konturako lana edo bere kasuan jasotako pentsioak izatekotan.
  - Eskatzailea umezurtz denean eta umezurtz pentsioa diru iturri bakarra denean, edo beste familia unitate baten menpe dagoenean.
- Sarreraren ehuneko berrogeita hamar, kenkari hau kide kontagarri guztiei aplika dakieke, eskatzaileari, familiaburuari eta bere ezkontideari izan ezik.
- 500 € etxe berean bizi den seme-alabako, eskatzailea barne, maila orokorreko familia ugaria denean; eta 765 € maila bereziko denean.
- 1.811 € legez aitortutako ezintasuna duen eta lan irabazirik ez duen kide konputagarri bakoitzeko; kenkari hau 2.881 € izango da ezintasuna %65koa edo gehiagokoa bada, eta 4.000€ %65eko edo gehiagoko ezintasuna eskatzaileak duenean.
- 1.176 €, baldin eta unibertsitate-ikasketak direla eta familia-egoitzatik kanpo bizi diren kideak gutxienez bi badira.

#### ONDASUN-MUGAK (GEHIENKOA)

- Hiri finkak:** 42.900€ (ohiko etxebizitza salbu). Ohiko etxebizitzaz gainera, familia-unitatea beste bi etxebizitzaren jabe bada, beka ukatu egingo da.
- Landa finkak:** 13.300 € familiaren kide konputagarri bakoitzeko.
- Balore higigarriak:** 2.100 €-etekinen muga.
- Jarduera ekonomikoak:** 169.470 € rarteko fakturazio bolumena.

### • IKASKETA BALDINTZAK (20. artikulutik 22.era)

- Oraingo kurtsoan matrikulatutako ikasgai edo kredituen gutxieneko zenbakia :** -Ikasketak plangintzaren kredituen zenbaki totalaren %85 zati plangintza horren urte kopurua. -Mailako eta Master Ofizialen ikasketetan: 60 kreditu.
  - Gainditu gabeko kredituen gehiengoa:** Aurreko kurtsoan matrikularen arabera
    - % 50 irakaskuntza teknikoaren kasuan.
    - % 35 gainerako unibertsitate ikasketetan.
- Master ofizialen kasuan, 2. kurtsoan beka jasotzeko aurreko kurtsoan matrikulatutako gutzia gainditu behar da.
- Batezbesteko nota: Master ofizialentzat bakarrik:** 6 (1,17 koefiziente zuzentzaile aplikatzen da ikasketak teknikoaren batez bestekoetan)



Unibertsitate  
Bekak  
>2011-2012



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN